

**ARTIUM BILDUMA PARTEKATUA PROIEKTUA BISITA  
VISITA A LA COLECCIÓN PARTICIPADA ARTIUM**

2021-02-22 Vitoria-Gasteiz 22-02-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Arabako Aldun Nagusi jauna, Eusko Jaurlaritzaren sailburu jauna, ARTIUM-eko arduradunok, jaun andreok, egun on guztiok eta bereziki gaur, eskerrik asko Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua; Bilboko Arte Ederren, Tabakalera-ren eta Artium-en zuzendariei. Eskerrik asko zuen hitzengatik eta “auzolana” arte eta kultura eremuan garatzeagatik.

Berritzailea eta ikusgarria da gaur aurkeztu dugun ekimena. Arte garaikideko 24 sortzaileraren 42 obra berri sustatu, hautatu eta erosi dituzue elkarrekin. Euskadiko artegintza garaikidearen ondarea aberasten duten sorkuntza lanak dira.

En esta situación de crisis sanitaria abris una nueva ventana y lo hacéis trabajando en común. Una ventana a la creación, la producción y la divulgación artística y cultural, ámbitos profesionales que están sufriendo las consecuencias que genera la pandemia.

Esta actuación de mecenazgo público que presentamos es un ejemplo de esfuerzo colectivo en favor de la cultura y del arte particularmente. Forma parte de la política integral de recuperación económica y social que refleja nuestro nuevo Presupuesto. Así, en el caso del Gobierno Vasco vamos a publicar 23 convocatorias con un importe de más de 13 millones de euros.

En breve anunciaremos una convocatoria extraordinaria de 1.100.000 euros para dar soporte a profesionales autónomos, empresas y entidades profesionales del ámbito cultural para hacer frente a los daños que la emergencia sanitaria ha causado en el mantenimiento de su actividad, sus estructuras y su know how.

Osasun-krisialdiak astindutako egoera larri honetan, lehen bait lehen zabaldu nahi ditugu kulturagintzari zuzendutako laguntzak. Guztira 23 deialdi zabalduko ditu Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, 13 milioi euro baino gehiago inbertituz.

Laister, 1.100.000 euroko deialdi berezi bat iragarriko dugu, kultura-arloko autonomoei, enpresei eta erakunde profesionalei laguntzeko, osasun-larrialdiak euren jardueran, egituran eta “know-how”-ean eragindako kalteei aurre egiteko.

Aurrekontu gehiago eta erraztasun gehiago ere. Laguntza hauek banatzeko orduan, erraztasunak eman nahi dizkiegu sortzaileei eta eragileei, diruaren hiru laurdenak laguntza esleitzeko une berean ordainduz.

Son ayudas a la actividad y creación cultural y artística que ya estamos activando. Nuestro objetivo es seguir haciendo todo lo posible para reanimar la producción cultural, mantener las actividades presenciales; para que Teatros, Museos, Bibliotecas o Archivos sigan abiertos al público en esta complicada situación de crisis sanitaria.

Somos conscientes del valor social y económico de la actividad cultural. La creación artística, su producción, conservación y proyección social son consustanciales a las políticas de reactivación económica, recuperación del empleo y reanimación social que impulsamos. Este valor social se va a reforzar por la apuesta de Euskadi por las industrias culturales y creativas como territorio de oportunidad en el horizonte 2030.

Cultura y respuestas creativas y constructivas frente a la crisis que estamos padeciendo. Todo lo contrario de lo que representa la violencia y episodios como los vividos ayer y en los días anteriores. Manifiesto mi más contundente condena frente a estos actos de violencia. Constituyen una expresión de brutalidad y destrucción que denigran el sentido de la dignidad humana, muy especialmente de quienes los protagonizan.

Kultur ekitaldi honetan, atzo eta aurreko egunetan gertatutako indarkeria ekintzen aurkako gaitzespenik sendoena adierazten dugu. Gizakiaren duintasunaren zentzua gaitzesten duten ekintzak dira, bizikidetzaren aurkakoak.

Kultura bizikidetzeta da, aukera bat da. Osasun-krisiaren eta pandemiaren ondorio ekonomikoak eta sozialak gainditzeko ezinbesteko lanabesa da kulturgintza. Garapen ekonomikoaren eta sozialaren eredu orekatu eta iraunkor bat lortu nahi badugu, nahi-ta-nahiezko bidelagun izan behar ditugu kulturgintza, kultur-ondarearen zaintza eta bere zabalkundea.

Eskerrik asko bai Artium, bai Bilboko Arte Ederren Museoa eta baita Donostiako Tabakalera auzolanaren indarra erakusteagatik.

Eskerrik asko denoi eta egun ona izan dezazuela!